

TOPAKETAK BIZKAIAREKIN/

ENCUENTROS CON BIZKAIA

2022
2023

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



FITXA TEKNIKOA

EGINDAKO DEIEN KOPURUA, GUZTIRA * **10.415**

GONBIDAPENA ONARTU DUTEN PERTSONEN KOPURUA: **462**

JATORRIZKO UDALERRIAK: **51**

TOPAKETAK: **8**

BUSTURIALDEA Urriak 6- 2022, LEA-ARTIBAI Urriak 20- 2022, NERBIOI-IBAIZABAL Azaroak 3- 2022, DURANGALDEA Azaroak 17- 2022, ENKARTERRI AZAROAK 24- 2022, ESKUINALDEA-URIBE KOSTA Abenduak - 2022, EZKERRALDEA Abenduak 15- 2022, BILBO Urtarrilak 16- 2023

BERTARATUTAKO PERTSONAK: **298**

LANTALDEAK: **36**

LANTALDEAK EUSKARAZ: **%25**

TXIKIGUNE ZERBITZUA: **7 HAUR**

* Telefono bidezko gonbidapena egin zen eskualdeka. Topaketa bakoitzean eskualdeko errealitate soziodemografikoaren oinarritutako lagin adierazgarri bat ezarri zen. Lagina ezartzeaz gain kuota batzuk jarri ziren ere (sexuaren, adinaren, udalerriaren eta abarren arabera). Kuotak bete arte gonbidapenak egin ziren gonbita onartzen zuten pertsonekin.

la **24 orduko entzunaldia izan da**, hiru lanegun, urteko 365 lanaldietatik egun oso bat, 8 eskualde eta 51 udalerritako 298 bizkaitar zuzenean entzuteko aukera, bitartekorik eta oztoporik gabe.

Lea-Artibaitik Bilboraino, Durangaldea, Ezkerraldea, Busturialdea, Enkarterri, Nerbioi-Ibaizabal eta Eskuinaldea igaroz. Lurralde osoa zeharkatu dugu aurpegia emateko, kontuak emateko eta, batez ere, entzuteko. Entzutea zuengandik ulertzeko eta ikasteko, Bizkaia hobea egiten jarraitzeko.

Lurraldean **MUGIKORTASUN** egokia izatea lehentasunezkoa zaizuela esan diguzue. Premiazkoa iruditzen zaizuela Bizkaiko **GARAPEN EKONOMIKOAREKIN** zerikusia duen guztia indartzea. Pertsonen zaintzaren inguruan kezkatzen zaituzten guztia ere aipatu diguzue, eta horregatik ematen diozuela balioa bereziki **GIZARTE EKINTZA** sailari. Baita Bizkaiko **AZPIEGITUREKIN** zerikusia duen guztia hobeto ezagutu nahi duzuela ere.

Lau gai horiek izan dira eskualde guztietan gehien errepikatu direnak, baina ez bakarrik. Eskualdeen arteko oreka, administrazioarekin harremanek errazteko nahia, fiskalitatearekin eta ingurumenarekin lotutako oharra eta eskaerak ere helarazi nahi izan dizkiguzue.

Aurrez- aurreko 8 topaketa izan dira, zintzoki entzuteko eginak eta helarazi diguzuenaren laburpena jasotzea da dokumentu honen helburua. Eskaerei dagokionez dagoeneko bilduak ditugu eta departamendu bakoitzeko arduradunari helarazi dizkiogu kontuan har ditzan.

Gauzak zintzoki egiten saiatu gara , eta horretan ere hobetzen jarraitu nahi dugu. Topaketa hauek merezi dutela esan diguzue, eskualdeko beste errealitate batzuk entzuteko balio dutela azpimarratuz. Baina baita laburra egin zaigula eta denboran hobetu behar dugula ere.

GOGOAN HARTU DUGU



MUGI- KORTA- SUNA



MUGIKORTASUNA

HOBEEKUNTZAK:

Bizkaibus zerbitzua hobetzea eskatzen da. Batetik, bikoizketak saihestuz, adibidez, ordutegi berdinetan trena eta autobusak ekidituz; bestetik udalerrien arteko loturak hobetuz.


BERRIA:

Ordutegi zehatzetan industrialdeak eta jarduera-poloak tren/ metro geltokiekin lotzeko aukera aztertzea.

ALDAKETA:

Bizikletaren erabilerak ekarriko duen mugikortasunaren aldaketa modu integralean planifikatu: aparkalekuak aurreikusiz, bizikleta elektrikoak erosteko pizgarriak bultzatuz eta honen erabilera prestigiatuz.

Gai garrantzitsua da Bizkaiko eskualde guztietan, baina indar berezia du hauetan:



GARA- PEN EKONO- MIKOA



GARAPEN EKONOMIKOA

ENPLEGUA:

Lehentasuna enplegua da. Helburua kalitatezko enplegua izanik fokoa prestakuntza hobetzean dagoela azpimarratzen dute.


INDUSTRIA:

Industrian era ezberdinetan inbertitzeko beharra: laguntzak (egin daitezkeen guztiak), erraztasunak.

MERKATARITZA:

Foru Administrazioaren-tzat garrantzizko behar du ere espazioa honek. Ezinbestekoa da: merkatarien elkarreetekin duten elkarriketa eta komunikazioa hobetzea.

Gai garrantzitsua da Bizkaiko eskualde guztietan, baina indar berezia du hauetan:





GIZARTE EKINTZA


PERTSONAK ZAINTEA:

Mendekotasun-maila baloratzeko eta egoitza batean sartzeko denborak laburtzea.

ETXETIC:

Oso interesgarria, baina oraindik ezezaguna, informazio gehiago jaso nahi da.

Gai garrantzitsua da Bizkaiko eskualde guztietan, baina indar berezia du hauetan:






AZPIEGITURAK

ERREPIDEAK, ZUBIAK, TUNELAK eta abar

Eskualde bakoitzak bere kezak eta galderak ditu. Eskuinaldean esate baterako interes berezia du itsasadarraren azpiko tunelak, baita *Avanzada*-n egingo diren lanak ere. Busturialdea aldiz, Sollubeko tunela da kezka nagusia, berriz, Lea-Artibai-n Gernikako saihezbidea eta Ondarroarekiko lotura.

Gai garrantzitsua da Bizkaiko eskualde guztietan, baina indar berezia du hauetan:



BESTE EKINTZA BATZUK

Administrazioarekiko harremanak.

Aldundiaren gastuaren egitura ezagutzea, eta administrazio-izapideak arintzea eta sinplifikatzea.

Gai garrantzitsua bereziki:

Durangaldea y Bilbao.

Eskualde-oreka.

Komunikazioetan (digitalizazioan), errentan, enpleguan eta abarretan hautemandako desberdintasunaren ondorioz, eskualdeetarako plan espezifikoak eta udalerrietarako ekintza zehatzak eskatzen dira. Eskualde barruko desorekak ere badaudela uste da.

Gai garrantzitsua bereziki:

Enkarterri, Ezkerraldea y Lea-Artibai.

Fiskalitatea.

Bi zentzutan: batetik, haren erabilera jarduera ekonomikoa sortzeko, abantailak emateko, lurralde historikoa erakargarri egiteko, bestetik, zergen kobrantza-ordainketa handikotzat jotzen da eta bide batez zergen erabilera egokia zalantzan jartzen da.

Gai garrantzitsua bereziki:

Eskuinaldea.

Turismoa/aisialdia.

Urdaibaiko Guggenheim museoak eta Bizkaiko turismo-ereduak galderak sortarazten ditu, informazio gehiago izatearen eskaria dago (Bilbo gainezka dago? galdera behin baina gehiagotan errepikatu da).

Gai garrantzitsua bereziki:

Busturialdea y Bilbao.

Ingurumena. Birziklapena, klima-aldaketa, eukaliptoak, ura, ibaiak eta abar, gauza ezberdin asko. Enkarterrin eta Urdaibain, kontserbazioaren eta jardueraren arteko orekan arreta jarri dute.

Gai garrantzitsua bereziki:

Enkarterriak y Busturialdea.

BALORAZIO INKESTA

Topaketetako parte-hartzaileen
% 28k erantzun dio
ebaluazio-galdetegiari.


8 izan da topaketan parte hartu
dutenen bata besteko
balorazioa 0tik 10erako eskala
batean. 0 oso esperientzia txarra izan
dela kontuan izanik eta 10
esperientzia bikaina. Lau parte-
hartzailetik batek, % 25ek, 10ekin
baloratu du.

8,6 izan da **"Eskualdeko
beste pertsona batzuei
entzun ahal izatea"** -k lortu duen
balorazioa. 0tik 10era bitarteko
eskanan, 0 "ezer interesgarria", eta 10
"interes handienekoa" izanik.

8,1 izan dan hurrengo
baieztapenari **"Nire iritzia
eta kezka askatasunez adierazi
ahal izateari"** eman zaion balorazioa.
0tik 10era bitarteko eskalan, 0 "ezer
interesgarria", eta 10 "interes
handienekoa" izanik.

8 izan da **"Ahaldun Nagusiarekin
aurrez aurre hitz egin ahal
izatea"** ren aukerak jaso duen
balorazioa. 0tik 10era bitarteko
eskanan, 0 "ezer interesgarria", eta 10
"interes handienekoa" izanik.

7,4 da **"Ahaldun Nagusiaren
hitzaldiak"** jaso duen
balorazioa. 0tik 10era bitarteko
eskanan, 0 "ezer interesgarria", eta 10
"interes handienekoa" izanik.



HITZEZ- HITZEZKOA

Talde ezberdinetan parte hartzen duten pertsonen artean intentsitate handiz errepikatu diren aipu batzuk hautatu ditugu, horrela, iritziak zehatz-mehatz irakurtzeko eta bertaratutako pertsona batzuek erabilitako hitzak zehatz-mehatz ezagutzeko aukera izango dugu. Informazioa zehatz-mehatz eta aldaketarik gabe aurkezten dela ziurtatuz.

OKERRENA

1. *“Demasiado el tiempo de la exposición inicial, se debería reducir para así poder aumentar el tiempo de escucha a los grupos. Quizás organizar grupos más en modo sectorial. La dispersión enriquece pero en poco tiempo es difícil concretar”.*
2. *“No poder hablar mucho con él, quizá por estar en el último grupo, sin embargo me parece una experiencia muy enriquecedora. Poder hablar de tú a tú con el Diputado (que fue muy cercano y eso que yo tampoco soy una persona que me pueda considerar proclive a votar al PNV) y que sobre todo por conocer qué piensan otras personas de las comarca”.*
3. *“El poco tiempo que hemos tenido para hablar de los temas con Eli y Unai, creo que lo idóneo sería seleccionar los temas de interés de las mesas y hacer grupos con los temas a tratar para profundizar en ellos”.*
4. *“Partehartze denbora laburra izan zan. Egon zan denborarako Diputatuaren eta Ahaldundiko Nagusiaren txarлак luzeegiak izan ziren. Talde lanetan gai interesgarriak irten ziren eta ez gendun euki eztabaidatzeko denbora askorik”.*
5. *“Esperientzia honen helburua zein izan den ez daukat oso argi. Baina, nire iritzi pertsonala hurrengo da. - Hasiera speech-ak ez dauka lekurik horrelako saioetan. Helburua hiritarron iritzia eta preokupazioak entzutea bada, saio erdia hiritarrak zuen speech-a entzuten eman dugu. - Saioaren dinamika ez zait asko gustatu. Alde batetik, taldeetan landuko galdera oso irekiak ziren eta bakoitza bere gauza pertsonaletan zentratzen da. Nire ustez, gaur egun eta etorkizunean izango ditugun erronkei erantzuna ematen ahalegindu beharko ginen eta ez herri bakoitzak dituen arazoen gainean. Hori udalen gauza izango da. - Bestetik, taldeak lar handiak zirela esango nuke. Honelako partehartze saioetan talde bakoitzeko 5 pertsonarekin nahikoa dela uste dut, bestela zure partehartzea eskas gelditzen da”.*

HITZEZ- HITZEZKOA

HOBERENA

1. *"El encuentro con el resto de participantes. Porque aportaron experiencias y puntos de vista muy interesantes al compartir sus preocupaciones".*
2. *"Que todos hemos podido expresarnos con libertad y que tanto Unai Rementeria como Elixabete escuchaban, respondían y anotaban nuestras impresiones".*
3. *"Saber de primera mano cómo se recauda y se gasta el dinero de los contribuyentes. El coloquio con gente de distintos municipios".*
4. *"La propia experiencia en sí, que se quiera conocer de forma directa lo que piensan los ciudadanos de la comarca".*
5. *"Poder expresarme con libertad de las necesidades de mi pueblo".*
6. *"El poder expresar mi opinión. Aunque ha sido poco tiempo".*
7. *"Poder plantear los problemas directamente al máximo responsable y ser respondido en el momento y con claridad".*
8. *"Que la Diputación salga a la calle a escuchar al pueblo."*
9. *"Escuchar la visión de otras personas. Compartir ideas. Creo que sería muy necesario realizar estas sesiones sectoriales más frecuentemente. Para la administración creo que toda esta recogida de información vale "oro".*
10. *"Me ha parecido positiva la cercanía de los diputados, poder transmitir algunas cuestiones (no demasiadas debido a las limitaciones del tiempo) y poder conocer inquietudes de otras personas".*
11. *"Probablemente la cercanía con un alto cargo de la diputación. Porque no es muy frecuente que bajen a hablar con la ciudadanía".*
12. *"Gure eskualdearekin zerikusia zeukaten azpiegitura eta zerbitzuei buruz barri emon zigutela. -Adeitasunez entzun gintuztela, bakoitzari, behar zuen denbora eskainiz -Gure hizkuntza eskubideak errespetatu zirela (badakit ez dela beste munduko ezer, baina Basaurin, tamalez, ez da maiz gertatzen). -Pertsonalki asko gustatu zitzaidan Unai bidegorrien inguruan daukan ezagutza, ideiak argi dauzka eta ondo asesoratuta dago. Oso pozik atera nintzan batzarretik".*
13. *"Indudablemente, el ambiente de cercanía entre los asistentes con Elixabete Etxanobe y Unai Rementería. Esa cercanía hizo que el encuentro se haya desarrollado en un ambiente muy distendido y afable".*

GLOSATE- GIA

GLOSATEGIA

- **Mugikortasuna.** Mugikortasunaz ari garenean, Bizkaibusez eta bizikletaz ari gara, udalerrien arteko konektibitateaz.
- **Garapen ekonomikoa.** Garapen ekonomikoaz ari garenean, enpleguaz, industriaz eta merkataritzaz ari gara.
- **Gizarte Ekintza.** Gizarte-ekintzaz ari garenean, pertsonen zaintzaz ari gara. Adinekoak, desgaitasuna duten pertsonak eta Etxetic eredua.
- **Azpiegiturak.** Azpiegiturez ari garenean, errepideez, tunelez, zubiez eta abarrez ari gara.
- **Administrazioarekiko harremanak.** Administrazioarekiko harremanez ari garenean, gardentasunaz, izapideen bateratzeaz eta komunikazioaz ari gara.
- **Eskualde-oreka.** Eskualde-orekaz ari garenean, eskualdeko inbertsio eta planez ari gara, baita Bizkaiko eskualdeen eta eskualde barruko desorekez ere.
- **Fiskalitatea.** Fiskalitateaz ari garenean, zergez eta horien erabileraz ari gara.
- **Turismoa/aisialdia.** Turismoaz/aisialdiaz hitz egiten dugunean, Bizkaia bere turismorako duen ereduaz hitz egiten dugu, baita aisiak gaztaroan duen paperaz ere.
- **Ingurumena.** Ingurumenaz hitz egiten dugunean eukaliptoaz, eredu energetikoaz eta jarduera ekonomikoaren sorreraren eta babesaren arteko orekaz hitz egiten dugu.
- **Literalak edo verbatimak.** Informazio zehatza duten testu-aipuak dira. Hau da, hitzez hitzeko aipuak dira, eta idatzi edo hitz egin diren bezala transkribatzen dira, inolako aldaketarik egin gabe, informazioa zehatz-mehatz eta aldaketarik gabe aurkezten dela ziurtatzeko.

TOPAKETAK
BIZKAIAREKIN/

ENCUENTROS
CON BIZKAIA

2022
2023

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral